



**ARRISKUAN DAUDEN
ESPEZIEAK EUSKAL
AUTONOMI ERKIDEGOAN**

**ESPECIES EN PELIGRO
EN LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DEL PAÍS VASCO**

Azertu
Programa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



MEHATXUAK ARRISKUAN DAUDEN ESPEZIENTZAT

AMENAZAS PARA LAS ESPECIES EN PELIGRO



Panpa-lezka / Plumero de la Pampa
(Cortaderia selloana) Espezie inbaditzailea /
Especie invasora

Argitalpen honen ondorengo orrialdeetan **EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan** agertzen diren eta **Galzorian** dauden espezietako batzuk ezagutuko ditugu. Kategoría honetan sartzen diren animalia eta landare guztiek galtzeko bidean dauden populazio txikiak dituzte, kalte egiten dieten mehatxu eta arriskuak eteten ez badira behintzat. Beste hainbatetan bezala, mehatxu nabarmenena gizakiok sortzen dugun presioa da.

Habitataren suntsipena eredu garbia da, espezie batzuentzat ezinbestekoak diren ekosistema naturalak desagerrarazten edo eraldatzen dituena. Bertoko basoak egurra lortzeko xedearekin landatu diren eremuak bihurtu dira. Hainbat gune uraren, lurzorua eta atmosferaren kutsadura jasaten dute. Beste gaitz batzuk, gizakiak sortuak ere, espezie inbaditzaileen sarrera edo legez kanpoko ehiza dira. Lehenengoek bertokoekin baliabideak lortzeko lehia egiten dutelarik.

Pozoitutako karnatek animalia askoren heriotza sortzen dute inolako bereizpenik egin gabe, sartutako espezie batzuek habitata eta baliabideak kentzen duten heinean.

En las siguientes hojas de esta publicación conoceremos algunas de las especies que se encuentran en **Peligro de Extinción** según el **Catálogo Vasco de Especies Amenazadas**. Todos los animales y plantas incluidos en dicha categoría cuentan con poblaciones muy reducidas que corren riesgo de desaparecer, a menos que cesen los peligros y amenazas que las vulneran. Como en tantas ocasiones, el principal factor de riesgo es la presión que ejercemos los humanos.

La destrucción del hábitat, que elimina o modifica ecosistemas naturales esenciales para algunas especies es el ejemplo más claro. Grandes masas de bosque autóctono han dado paso a amplias extensiones de plantaciones madereras, mientras que otras zonas han sido afectadas por la contaminación del agua, el suelo, y la atmósfera. Otros males, también de origen antrópico, son la introducción de especies invasoras que compiten por los recursos con las autóctonas, o la caza ilegal ejercida sobre poblaciones en concreto.

Los cebos envenenados causan la muerte de numerosos animales sin hacer distinción, mientras que algunas especies introducidas se apropian del hábitat y los recursos.



Pozoitutako hegazti harraparria
Rapaz muerta por envenenamiento

Hegoaldeko Zuhaitz-Igela (*Hyla meridionalis*)

Ranita Meridional (*Hyla meridionalis*)



Anfibio txiki hau gaur egun EAEn desagertzeko arriskurik handiena duena da. Bere hedapena oso murriztua da Iberiar Penintsulan, atzeraka doana gainera. Izan ere, kantauri isurialde osoan Mendizorrotz mendian (Gipuzkoa) soilik aurkitu dezakegu.

Igel honen populazioek inguruaren eraldaketak nabarmen pairatzen dituzte, batez ere habitataren sunsipena eta uren kutsadura. Etxebizitzarako erabiltzen den uraren bilketak ezinbestekoa zaien baliabidea kentzen die anfibioei. Pestizida eta ongarriek, berriz, putzu eta lakuen kutsadura sortzen dute.

Gutxi izatearen arriskua

Mehatxu eta arrisku guztiei gutxi izatearen oztopoa gehitu behar zaio. Izan ere, behin-behineko ezbeharrak, esate baterako, ustekabeko isurketa edo sute batek igel populazio osoarekin akaba lezake. Ohikoagoak diren beste zorigaitz batzuk autoen harrapatzeak adibidez, askoz ere kaltegarriagoak dira ugariagoak diren espezieekin alderatuz.

Isolamenduaren kontrako aintzirak

Gune hezeak nahitaezkoak dira igel honentzat, putzuetan ugaltzen direlako eta zapaburuaren hazkuntza gertatzen delako. Horregatik hainbat aintzira artifizial sortu dira: Goinetxe, Errotatxo edo Pokopandegikoa, besteak beste.



Este pequeño anfibio es el que mayor peligro de extinguirse corre en la CAPV actualmente. Su distribución en la península ibérica es reducida y en retroceso, tanto que en toda la franja cantábrica únicamente se localiza en el monte Mendizorrotz (Gipuzkoa).

Las poblaciones de Ranita Meridional sufren en extremo las alteraciones en el medio, sobre todo la destrucción del hábitat y la contaminación de las aguas. La captación de agua para el uso residencial conlleva privar de un recurso esencial a los anfibios, mientras que el uso de pesticidas o abonos orgánicos provoca la contaminación de pozas y lagunas, dejándolas inhabitables.

El peligro de ser pocos

A todas las amenazas ya mencionadas hay que añadirle el hándicap de ser pocos individuos, ya que una desgracia puntual, como puede ser un vertido o un incendio accidental, podría acabar con la población total de ranas de un solo plumazo. Males habituales como los atropellos, son mucho más dañinos que para otras especies más abundantes.

Charcas contra el aislamiento

Las zonas húmedas son esenciales para esta rana, ya que es en pequeños pozos donde se reproduce y desarrollan los renacuajos. Por ello se han creado pequeñas charcas artificiales, como son las de Goinetxe, Errotatxo o Pokopandegi entre otras.



Benarriz arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*)

Txori txiki honek gure lurraldeko gune zingiratsuetan bizi da, bere txitak hazteko helburuarekin. Neguan, berriz, hegoalderako bidea hartzen du temperatura epelagoak bilatzuz. Zaila da hegazti hau antzematea, batetik, bere tamaina txikiagatik, baina batez ere, janzten dituen luma marroienagatik, inguruarekin ezin hobeto mimetizatzen dutena.

Benarriz arruntaren jarraipena ez da erraza, baina azkeneko datuei begiratuta badirudi Txingudin ugaltzeari utzi diola, Gipuzkoa osoan gertatu den moduan. Bizkaian, dirudienez, Muskizko padurak puntu garrantzitsua dira hegazti honen ugalketarako. Hala ere, egiaztatu beharreko datuak dira hauek guztiak.

Lezkarik ez, benarrizik ez

Lezkadiak galtzeko prosezua nabarmenean daude, eta hauekin benarriz arruntaren populazioa. Landare hauek habia egiteko leku aproposa dira hegaztientzat, elikagai iturri garrantzitsuen direlarik, izan ere, intsektuak eta eltxoak ugariak dira landare eta hezetasan konbinazio honetan.

Ezaguna den "Panpako lezka" (*Cortaderia Selloana*) famatua gure lezkaren lehiakide bihurtu da, eta gizakiaren presioarekin batera bere habitata galduz doa atsedetik gabe.

Carricerín común (*Acrocephalus schoenobaenus*)

Este pequeño pájaro habita zonas pantanosas de nuestro territorio con el objetivo de criar a sus polluelos. En invierno, en cambio, migra hacia el sur en busca de temperaturas más suaves. Es difícil de detectar, en parte por su reducido tamaño, pero sobre todo por el plumaje pardo que luce, que le mimetiza con el entorno. Los cantos y los ejemplares atrapados en las redes de anillamiento son la manera más habitual de censar estas aves.

Su seguimiento es dificultoso, pero por los datos que se tienen se estima que ha dejado de reproducirse en la zona de Txingudi, incluso en todo el territorio de Gipuzkoa. En Bizkaia, se cree que los humedales de Muskiz son un punto importante para la reproducción del Carricerín, aunque está por contrastar.

Sin carrizo, no hay carricerín

Los carrizales están en claro retroceso, y con ellos la población de carricerines. Estas plantas aportan a las aves un lugar donde anidar, a la vez que su principal fuente de alimento, ya que los insectos y mosquitos son abundantes en esta combinación de vegetación y humedad.

El conocido "plumero de la pampa" (*Cortaderia Selloana*) se ha convertido en un competidor por el hábitat del carrizo, que junto a la presión humana lo desplaza sin descanso.

Lezka / Carrizo (*Pharmites australis*)





Eguzki-ihintzak, landare haragijaleak

Droseras, plantas carnivoras

Landare honen bi espezie azpimarratzekoak dira, *Drosera intermedia* eta *Drosera longifolia* (urriagoa), biak oso antzerakoak. Zonalde zingiratsuetan bizi dira, azidoak aukeran, gure mendietako zohikaztegien modukoak. Hemen kokatzen dira populazio nabarmenenak, gizakiak sortutako zohikaztegien lehorketatik ihesean. Toki hauek eremu osasungaitzak zirela uste zen, batik bat landareen oxigeno gabeko deskonposaketak sortzen duen usain txarragatik. Izan ere, fermentazio hau da erdi-deskonposaketan dauden materia organikodun lurzoru sakonak sortzea posiblea egiten duena, zohikatz geruza nabarmen batekin, nekazaritzarako oso preziatua.

Gorbeia eta Izki Parke Naturalak, edota Leizaran eta Ordunteko eremu babestuak badituzte oraindik ere zonalde zingiratsuak eguzki-ihintzeentzako egokiak.

Eguzki-ihintzak ingurura egokitu dira intsektujaleak bihurtuz, izan ere, leku askotan “atrapamoscas” izena jarri diete. Morfologia guztiz ezberdina da bestelako landareekin konparatuz, substantzia itsaskorra jariatzen duten ehunka egitura luze dituzte. Intsektu bat gerturatzten denean harrapatuta geratzen da “itsasgarri” hau ukitzean.

Cabe destacar dos especies de esta planta, *Drosera intermedia* y *Drosera longifolia* (más escasa), ambas muy parecidas. Habitan zonas pantanosas, preferentemente ácidas, como las turberas de nuestros montes. Es aquí donde se localizan las poblaciones más representativas, huyendo de la desecación provocada de muchas turberas por el ser humano. Estos lugares eran considerados zonas insalubres que había que eliminar, sobre todo por el mal olor que en ocasiones mana debido a la descomposición anaerobia de la vegetación. De hecho, es esta fermentación la que hace posible la formación de suelos gruesos de materia orgánica en semi-descomposición, con una capa considerable de turba, muy apreciada para la agricultura.

Los Parques Naturales de Gorbeia e Izki, o las zonas protegidas de Leizaran y Ordunte poseen aún hoy día lugares pantanosos que mantiene hábitats propicios para las droseras.

Las droseras se han adaptado para convertirse en depredadoras de insectos, no en vano en muchos lugares se la denomina “atrapamoscas”. Su morfología es diferente al del resto de plantas, y posee cientos de estructuras alargadas que segregan una substancia pegajosa. Cuando un insecto se aproxima queda atrapado al contactar con este “pegamento”.

MUSTELIDOAK ARRISKUAN

MUSTÉLIDOS EN PELIGRO

Gaur egun ia-ia ezinezkoa da gizakiaren eraginetik kanpo geratzen den leku naturalik aurkitzea. Ibaien ibilguetan bizi diren espezieek gure presentzia jasaten dute neurri handiago edo txikiago batean, eta ugaztunak kalte hau gehien nabaritzen dutenen artean daude. Antzina ibaien edozein lekutan aurkitzea erreza zen, baina gaur egun igarabak (*Lutra lutra*) eta bisoi europarrak (*Mustela lutreola*) zonalde urrunetan edo zainduenetan bizi dira soilik.

Es casi imposible encontrar a día de hoy un lugar natural alejado de la huella humana. Las diferentes especies que habitan los cauces sufren en mayor o menor medida nuestra presencia, y los mamíferos son de los más sensibles. Antaño podían observarse en prácticamente la totalidad del recorrido de los ríos, pero actualmente la nutria (*Lutra lutra*) y el visón europeo (*Mustela lutreola*) habitan las zonas más inaccesibles o mejor conservadas.



Igaraba / Nutria
(*Lutra lutra*)

Gris-marroizka kolorekoa, mustelido erdi-urtar handiena da. Izaera soziala dauka, ohikoa da beraz igaraba taldeak ikustea, batez ere kumeak hazterakoan. Azkeneko ikasketen arabera mediterraneanar isurialdeko ibaietan topatu da, Araban hain zuzen ere, baina ez Bizkaia eta Gipuzkoan. Ebro eta bere adar diren Baias, Omecillo eta Zadorra ibaien populazioak nabarmentzekoak dira.

De un color gris-parduzco, es el mayor mustélido semi-acuático. Tiene carácter social, por lo que es normal ver grupos de nutrias, sobre todo en época de cría. Según los últimos estudios, se distribuye por las cuencas de los ríos de la vertiente mediterránea, por lo que se ha detectado en Araba, pero no en Bizkaia y Gipuzkoa. Destacan las poblaciones del Ebro y sus afluentes Baias, Omecillo y Zadorra.

Bisoi euorparra / Visón europeo
(*Mustela lutreola*)



Igaraba baino txikiagoa, eta orban zuri berezi batekin kokotsean eta sudur azpian. Habitataren deuzespenez gain, bisoi amerikarraren (*Mustela vison*) presentziak bisoi europarraren populazioa gutxitu du. Ibaizabal, Nerbioi, Oka, Lea, Urola, Oria eta Bidasoako inguruetan topa dezakegu, eskasa izan arren. Arabako ibaietan ere aurkituko dugu, Salburuan populazio finkoa duelarik.

Bisoi amerikarra / Visón americano
(*Mustela vison*) Espezie inbaditzailea /
Especie invasora

De menor tamaño que la nutria, y con una particular mancha blanca en la barbilla y bajo la nariz. Además de la destrucción de su hábitat, la introducción del visón americano (*Mustela vison*) ha diezmando el número de visón europeo. Podemos encontrarlo en las cuencas del Ibaizabal, Nervión, Oka, Lea, Urola, Oria y Bidasoa entre otras, pero de forma escasa. También está presente en los ríos alaveses, además de una población fija en Salburua.



Partekatutako gaitza

Bi espezieak oso preziatua den larruarengatik ehizatuak izan dira, arropa eta berokiak egiteko. Beranduago, bisoi amerikarraren hazkuntza garatu zen, abeletxetan pilatuta. Animalia hauetako batzuek ustekabean ihes egiten dute, eta noizbehinka industria honen kontrako taldeek askatzen dituzte, igaraba eta bisoi europarrarentzat lehiakide gogorra libre utziz.

Legez kanpoko ehiza, tranpak, zepoak, eta pozoitutako karnatak ere nabarmendu behar ditugu arrisku faktore bezala.

Un mal compartido

Las dos especies han sido cazadas por sus apreciadas pieles, utilizadas para elaborar ropas y abrigos. Más tarde, se optó por el visón americano, criado en granjas donde los animales se encuentran hacinados. Algunos de estos individuos escapan de forma fortuita, y en ocasiones son liberados masivamente por grupos contrarios a esta industria, lo que crea competencia por los recursos para el visón europeo y la nutria.

Hay que destacar también como focos de peligro la caza furtiva, las trampas y cebos, o los cebos envenenados.



Mazkar arantzaduna (*Cobitis calderoni*)

Lamprehuela (*Cobitis calderoni*)

Kobitidoen familiako arrain luzanga da. Ibai hondoetan bizitzeko bere gorputza egokituta du: estua, malgua eta ahoa beherantz duelarrik, jalkinean janaria bilatzeko.

Iberiar Penintsulan endemikoa den espezie hau, Ebro, Omecillo eta Baias ibaietan aurkitu da azkeneko hogeitertan. Hala ere, egindako azkeneko ikerketek populazio bakarra azpimarratzen dute Omecillo ibaian, arabako Espejo herrian, hain zuzen ere.

Migrazioa Ebrorantz

Zientzialariek Baias ibaiaren erdiko tarteetan aurkitu izan dute noizbait mazkar arantzaduna, baina ezinezkoa izan da datu hauek alderatzea laurogeita hamar hamarkadatik. Ur garbi eta ondo oxigenatuak ezinbestekoak izanik, espeziearen populazioa atzera egin du nabarmen, ibaiadarretatik desagertuz eta Ebron bilduz dentsitate handienak.

Iberiar Penintsulari dagokionez iparraldeko Duero eta Ebro ibaietako arroetan biltzen da espeziea.



Es un pez alargado de la familia de los cobitidos. Habita los lechos fluviales, por lo que ha adaptado su cuerpo, estrecho, flexible y con la boca hacia abajo para buscar alimento entre el sedimento.

Endémica de la Península Ibérica, esta especie ha sido citada en los ríos Ebro, Omecillo y Bayas en los últimos veinte años. Por el contrario, los recientes estudios realizados señalan a una única población de lamprehuela en el río Omecillo, en la localidad alavesa de Espejo.

Migrando hacia el Ebro

Científicos han llegado a catalogar esta especie incluso en los tramos medios del río Bayas, dato que no se ha vuelto a contrastar desde mediados de los años noventa. Dependiente de aguas limpias y bien oxigenadas, la tendencia de las poblaciones

de lamprehuela es la de claro retroceso en cauces afluentes, centrándose las mayores densidades censadas en el río Ebro.

En lo que se refiere a la península la especie se concentra en las cuencas del norte, la del Duero y la del ya citado Ebro.



Ur-azpiko zurtoinak / Tallos subacuáticos

Nenufar zuria (*Nymphaea alba*), urmaeleko bitxia

Nenúfar blanco (*Nymphaea alba*), joya del estanque

Ur gainean hosto erraldoiak eta lore zuri handiak dituen landare ikusgarria da, putzu, laku eta urmaeletan aurkitu dezakeguna. Errizomak ur-azpiko hondoetan finkatzen dira, bertatik zurtoin luzeak hazten direlarik ur-azaleraraino.

Nagusiki Europan zehar hedatzen da, hala ere, Afrikako iparraldean eta Asiako ekialdean ere aurkitu dezakegu. Iberiar Penintsulan 17 probintzietan topatu dezakegu, baina Araba da gure ordezkari bakarra, deskribatutako populazio batekin. Izan ere, puntu honetatik mendebaldera hutsune handia sortzen da nenufar zuriaren presentzia gabe.

Olandinako urmaela

Arraia-Maeztuko aintzira honetan aurkitzen da nenufar zuria EAEn, hamarka ale zenbatu direlarik. Azkenengo mendean Algortan aurkitu da espeziea, Zadorra, Ebro eta Santo Tomás ibaietan ere, baina gaur ez da berriro katalogatu. Beraz, leku hauetan desagertu dela uste da.



Es una vistosa planta con enormes hojas flotantes y llamativas flores blancas de gran tamaño, propia de aguas remansadas como lagos, lagunas y estanques. Los rizomas se establecen bajo el fondo de las lagunas, desde donde crecen largos tallos hasta la superficie.

Su distribución se centra en Europa, aunque también incluye el norte de África y oeste de Asia. En la Península Ibérica se encuentra en 17 provincias, siendo Álava nuestra única representante con una sola población descrita. Es más, de aquí hacia el este se crea un gran vacío sin la presencia de nenúfar blanco.

Laguna de Olandina

En esta laguna del municipio de Arraia-Maeztu se cita la presencia de nenúfar blanco en la CAPV hoy en día, donde se concentran varias decenas de ejemplares. En el último siglo se ha catalogado también en Algorta y los ríos Zadorra, Ebro y Santo Tomás, pero no se ha logrado contrastar en la actualidad, por lo que se desestima su presencia en estos lugares.



Muturluze piriniarra (*Galemys pyrenaicus*)

Desmán ibérico (*Galemys pyrenaicus*)

Ur-inguruna ezin hobeto egokituta dagoen ugaztun txikia da. Pisua 50 eta 80 gramo artean dabil, eta bere isatsa, gorputz osoa eta burua batera baino luzeagoa da. Gainera atzeko hankak aurrekoak baino askoz handiagoak dira, eta atzamarren artean mintz berezia daukate. Ezaugarri hauek igerilari paregabea bihurtzen dute muturluzea. Sudur luzea goraipatzekoa da, elikagaia aurkitzeko eta ingurua miatzeko aproposa.

Endemikoa da Iberiar Penintsulan, eta banakako batzuk aurkitu dira Endara, Oiartzun, Urumea, Añarbe, Leitzaran, Amundarain, Agauntza, Berroci eta Ayuda ibaietan.

Janariarekiko zorroztasuna, arriskurik handiena

Muturluzea ederto espezializatu da urpean or-nogabe txikiak harrapatzera, bereziki, ninfa (efemeroptero eta plekopteroenak) eta larbak (trikoptero eta dipteroenak). Hona hemen espeziarentzako arriskurik larriena.

Aipatutako intsektuak ez dira ibai edo erreketako uretan hazten, hauen kalitatea oso ona ez bada behintzat. Egoera ekologikoaren okerragotzearekin, ninfa eta larben presentzia geroz eta urriagoa da, muturluzeari elikagairik gabe usten diona. Kate trofikoari min egiten dion adibide garbia da hau.

Pequeño mamífero insectívoro perfectamente adaptado al medio acuático. El peso oscila entre 50 y 80 gramos, y posee una cola más larga que el cuerpo y la cabeza juntos. Además sus patas posteriores son mucho más grandes que las delanteras en proporción, y poseen una membrana entre los dedos. Estas cualidades convierten al desmán en un experto nadador. Destaca su larga nariz, con la que busca alimento e inspecciona el entorno.

Endémico de la Península Ibérica, se han encontrado ejemplares en los ríos Endara, Oiartzun, Urumea, Añarbe, Leitzaran, Amundarain, Agauntza, Berroci y Ayuda.

La exigencia con la comida, su mayor riesgo

El desmán está estrictamente especializado en atrapar pequeños invertebrados bajo el agua, principalmente, ninfas (de efemerópteros y plecópteros) y larvas (de tricópteros y dípteros). Y es aquí donde radica el mayor riesgo para la especie.

Los insectos citados no crecen en los cauces de los ríos o riachuelos a menos que la calidad de sus aguas sea muy buena. Con el empeoramiento de su estado ecológico, la presencia de ninfas y larvas es cada vez más escasa, lo que priva de alimento al desmán. Este es un claro ejemplo del daño en todos los niveles de la cadena trófica.



Ninfa

ibaialde monografikoak/monográficos ibaialde



Larba / Larva

Beste babes kategoriak **Otras categorías de protección**

“Galzorian” adierazitako espezieez aparte, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan badira beste hiru kategoria.


Además de las especies catalogadas como “en peligro de extinción” en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas existen otras tres categorías.

Espezie Kaltebera

Ez daude galzorian, baina egoteko bidean aurkitu daitezke arriskuan jartzen dituzten faktoreak desagertzen ez badira.

Dortoka korrontezalea (Mauremys leprosa)

Tertanga aintziran (Amurrio), Salburuan (Vitoria-Gasteiz), eta Bolueko hezegunean (Getxo) aurkitu dezakegu. Dortoka belarri-gorri inbaditzailearekin lehiatzen da baliabideengatik.



Espezie Vulnerable

No se encuentran en peligro de extinción, pero podrían llegar a estarlo de no corregir los factores adversos que les perjudican.

Galápagos leproso (Mauremys leprosa)

Presente en la balsa de Tertanga (Amurrio), Salburua (Vitoria-Gasteiz), y el humedal de Bolue (Getxo). Compete por los recursos con la introducida tortuga de florida.

Espezie Bakana

Tamaina txikiko populazioak, edota leku mugatu edo sakabanatueta daudenak, baina hala ere, galzorian edo kaltebera kategorietan sartzen ez direnak.

Zikoina beltza (Ciconia nigra)

Ez du gure lurraldean habiarik egiten, baina Gipuzkoan, Gernikako itsasadarrean, Abra inguruan, eta Ullibarriko urtegian (Arabako hainbat hezegunez gain) ikusi izan da.

Espezie Rara

Poblaciones de pequeño tamaño, o que se localizan en áreas geográficas concretas o muy dispersas, pero que aun así no se encuentran catalogadas como en peligro o vulnerables.

Cigüeña negra (Ciconia nigra)

No nidifica en nuestro territorio, pero se ha observado en Gipuzkoa, en la ría de Gernika, el entorno del Abra, y el embalse de Ullibarri (entre otros humedales alaveses).



Interes Bereziko Espeziea

Ez daude aurreko kategorietan sartuta, baina arreta berezia merezi duten espezieak dira, beraien garrantzia zientifiko, ekologiko, kultural edo berezkotasunagatik.

Uhandre piriniarra (Calotriton asper)

Leitzarango haranean (Gipuzkoa) topatu dezakegu. Pirinioetako espezie endemikoa da, mendilerro oso lotua. Hala ere, mendikatearen influentzia eremuan aurkitu daiteke.



Espezie de Interés Especial

No están incluidas en ninguna de las anteriores categorías, pero son especies que merecen una atención particular, por su valor científico, ecológico, cultural o singularidad.

Tritón pirenaico (Calotriton asper)

Lo encontramos en el valle de Leizaran (Gipuzkoa). Se trata de un endemismo pirenaico muy restringido a la cadena montañosa, aunque puede estar presente en su área de influencia.

902 160 138
aztertu@ej-gv.es
www.euskadi.net/aztertu